

ERABAKIA, UPV/EHUko IKASLE KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA, 2026ko MARTXOAREN 4ko EZOHIKO BILKURAN HARTUTAKOA, 2026ko MARTXOAREN 6rako ETENALDI AKADEMIKORAKO DEIALDIA ONARTZEN DUENA.

ACUERDO DE LA COMISIÓN PERMANENTE DEL CONSEJO DE ESTUDIANTES DE LA UPV/EHU, EN SU SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 4 DE MARZO DE 2026, POR EL QUE SE APRUEBA LA CONVOCATORIA DE PARO ACADÉMICO EL DÍA 6 DE MARZO DE 2026.

UPV/EHUko Ikasleen Araudiaren 2.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, UPV/EHUko ikasleek eskubidea dute beren eskubideak defendatzeko, eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.7 del Reglamento del Estudiantado de la UPV/EHU, las y los estudiantes de la UPV/EHU tienen derecho a la defensa de sus derechos y al ejercicio de sus reivindicaciones y protestas.

Ikasleriak eskubide horretaz 2.7 artikuluan jasotako bermekin baliatu ahal izateko, Ikasleen Araudian ezarritako prozedurari jarraituz egin beharko da etenaldi akademikorako deialdia.

Para que el estudiantado pueda acogerse a dicho derecho con las garantías recogidas en el artículo 2.7, se deberá de convocar paro académico siguiendo el procedimiento establecido en el Reglamento del Estudiantado.

27.1 artikulua etenaldi akademikorako deialdiaren erabakia hartzeko Ikasle Kontseiluko kideen bi herenek aldeko botoa eman behar duela ezartzen du.

El artículo 27.1 establece el requisito para la adopción del acuerdo de convocatoria de paro académico de contar con el voto favorable de dos tercios de las y los miembros del Consejo de Estudiantes.

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Barne Funtzionamenduaren Araubideko Arautegiaren 14.7 artikulua arabera, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra da maila orokorreko etenaldi akademikorako deialdia

Conforme al artículo 14.7 del Reglamento de Régimen de Funcionamiento Interno del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, el órgano competente para la convocatoria de paro académico de ámbito general es la Comisión



egiteko organo eskuduna. Izan ere, "Batzorde Iraunkorrak eskuordetuta ditu eginkizun guztiak, Lehendakaria aukeratzea eta bertako barne funtzionamenduaren araubidea onartzea izan ezik".

Permanente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, que ostenta, por delegación del Pleno, "todas las funciones del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, salvo la elección del Presidente o Presidenta y la aprobación de su régimen de funcionamiento interno".

Ikasleen Araudiaren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada.

Según el artículo 28 del Reglamento del Estudiantado, se podrá convocar paro académico siempre y cuando se realice en defensa de los derechos y en el ejercicio de sus reivindicaciones y protestas académicas.

Etenaldia ezarritako gehiengo kualifikatuz onartu ondoren, etenaldiaren deialdia idatziz jakinarazi beharko zaio organo eskudunari. Organo horrek, gehienez ere, 3 egun balioduneko epea izango du, eskaera Erregistro Orokorrean sartzen denetik zenbatzen hasita, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin biltzeko, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Una vez aprobado el paro por la mayoría cualificada estipulada, se establece que la convocatoria de paro deberá ser comunicada por escrito al órgano correspondiente, quien, en un máximo de 3 días hábiles desde la entrada de la solicitud en el Registro General, convocará una reunión con el Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU para verificar el cumplimiento de los requisitos.

Aurkeztutako eskaeraren testu osoa eranskin gisa erantsi da.

El texto íntegro de la solicitud presentada se adjunta como Anexo.

Horregatik, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, gehiengo kualifikatuaz, honako hau

Por todo ello, la Comisión Permanente del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU, por mayoría cualificada,

ERABAKI DU**ACUERDA**

LEHENENGOA.- Euskal Herriko Unibertsitate osoan 2026ko martxoaren 6an etenaldi akademikoa egiteko deialdia onartzea, egun osoan zehar indarrean egongo dena.

BIGARRENA.- Xedatutakoa Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordeari helaraztea, eta Ikasleen Araudiaren 28.4 artikuluan ezarritako bilera eskatzea, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau UPV/EHUko Ikasle Kontseiluaren Gardentasun Atarian argitaratzea.

PRIMERO.- Aprobar la Convocatoria de Paro Académico en toda la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para todo el día 6 de marzo de 2026, con eficacia durante toda la jornada.

SEGUNDO.- Trasladar lo dispuesto al Vicerrector de Estudiantes y Compromiso Social y solicitarle la reunión estipulada en el artículo 28.4 del Reglamento del Estudiantado para la verificación del cumplimiento de los requisitos.

TERCERO.- Publicar el presente acuerdo en el Portal de Transparencia del Consejo de Estudiantes de la UPV/EHU.

Leioan, 2026ko martxoaren 4ean.

En Leioa, a 4 de marzo de 2026.



Ocón Sáenz Sáenz

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko
Idazkaria
Secretaria del Consejo de
Estudiantes de la UPV/EHU

Iñigo Ugedo Vicario

O.E. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko
Lehendakaria
Vº Bº Presidente del Consejo de
Estudiantes de la UPV/EHU

ERANSKINA

ANEXO

1911ko martxoaren 8a: New Yorkeko ehungintza-enpresa bateko nagusiek 140 emakume langiletik gora erre zituzten lan egiten zuten lantegiaren barruan, lan-baldintza hobeak eta ordainsari altuagoak eskatzeagatik soilik.

Bertan dugu 2026ko martxoaren 8a eta 2026an daramatzagun bi hileotan dagoeneko 10 emakume hil dituzte emakume izate hutsagatik.

Emakumeen aurkako zapalkuntzak eta indarkeriak ez du etenik, eta, horregatik, zoritxarrez balore matxista eta misoginoei lotutako gizarte zisheteropatriarkal batean bizi garela aldarrikatzen jarraitzen dugu, gure generoagatik zapaltzen gaituena.

Ezin dugu egungo zailtasunez hitz egin feminismoaren aurkako ideiak nabarmen indartu direla onartu gabe. Gure gizartearen oinarriak astintzen dituen olatu erreakzionarioak, guztion arteko berdintasun erreal eta eraginkorrerantz egindako aurrerapenak zalantzan jartzeaz gain, mugimendu feminista bera deslegitimatzen saiatzen ari da, gehiegizkoa edo alferrikakoa balitz bezala aurkeztuz.

8 de marzo de 1911: más de 140 trabajadoras de una empresa textil de Nueva York fueron quemadas dentro de la misma fábrica donde trabajaban por sus propios jefes por pedir unas mejores condiciones de trabajo y una mayor remuneración.

Estamos a las puertas del 8 de marzo de 2026 y, en lo poco que llevamos de 2026, ya han asesinado a 10 mujeres por el mero hecho de ser mujeres.

La opresión y la violencia contra las mujeres no cesa, por lo que seguimos reivindicando que vivimos en una sociedad cisheteropatriarcal, encadenada a valores machistas y misóginos que nos oprime únicamente por nuestro género.

No podemos hablar de las dificultades actuales sin reconocer que el feminismo atraviesa un momento de fuerte contestación. La oleada reaccionaria que azota los cimientos de nuestra sociedad no solo cuestiona avances logrados entre todxs hacia la igualdad real y efectiva, sino que trata de deslegitimar el propio movimiento feminista, presentándolo como exagerado o innecesario.

Testuinguru honen baitan, feminismoa bera bereizten duten posizioak aurki ditzakegu. Hauen aurrean, argi eta irmo egiten dugu hautua feminismo inklusiboaren alde.

Gainera, kolektibo zaugarrituak haien artean aurrez aurre jartzen dituzten gorroto-diskurtso arrazista, xenofobo eta erreakzionarioek gora egiten dutela ikusten ari gara. Hori guztia ikusita, inoiz baino garrantzia handiagoa dauka **feminismo interseksional eta antiarrazista baten defentsak, giza eskubideekiko konpromezua eta LGTBQ+ kolektiboaren alde egiten duena.**

Harro egon gaitezke feminismoarekin benetan konprometitutako Unibertsitate Komunitate bat izateagatik, non berdintasunaren eta emakumeon askatasunaren aldeko espiritu kritikoa aurki dezakegun. Horregatik, M8 moduko aldarrikapen egun batean ezin dugu beste alde batera begiratu.

EHUko Ikasle Kontseilutik argi utzi nahi dugu honekiko dugun iritzia eta, beraz, garrantzitsua bezain beharrezkoa den aldarrikapen egun honetan bezperetan antolatuko diren mobilizazio eta ekitaldietan parte hartzera bultzatzen eta animatzen zaituztegu.

En este contexto, encontramos posiciones que dividen el propio feminismo. Frente a éstas, nos situamos clara y firmemente defendiendo un feminismo inclusivo.

A la vez, estamos viendo cómo se intensifican los discursos de odio racistas, xenófobos y reaccionarios que enfrentan a colectivos vulnerabilizados entre sí. Todo ello configura un escenario en el que la defensa de un **feminismo interseccional, antirracista, comprometido con los derechos humanos y que apoya al colectivo LGTBQ+** resulta más necesaria que nunca.

Tenemos la suerte de poder decir que en nuestra Comunidad Universitaria contamos con un compromiso real con el feminismo y que encontramos en ella el espíritu crítico en pro de la igualdad y la libertad de las mujeres. Es por eso que, en un día tan reivindicativo como el 8M, no podemos mirar hacia otro lado.

Desde el Consejo de Estudiantes de la EHU queremos dejar clara nuestra postura al respecto y, por ello, os animamos a todxs a participar en todas las movilizaciones y actividades que se organicen en vísperas de este día de reivindicación tan importante y necesario.



Borroka honetan, guztiok goaz O luchamos todas juntas, o no lucha
batera! Ez dago inor kanpo! ninguna.

Gora borroka feminista!